



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

16/02/18 Udaletxean 18.00-20.30



Gaurkoan bildu gara,

- Carlos Gonzalez (Irabazi)
- Adur Ezenarro (Bildu)
- Jose M^a Gomez (Herri ekimena)
- Edurne Huesa (Landarlan Ingurumen elkarte)
- Inma Landaluze (Herritarra)
- Emilia Roman (Herritarra)
- Miren Nekane Apaolaza (Herritarra)
- Jose Miguel Santamaria (Alkatea)
- Manuel Iturrioz (EAJ)
- Juan Ignacio Alonso (Ordizia Orain)
- Rosa Aurkia (Ingurumen teknikaria)

Gai ordena

Bileran ondoko gaiak landu ziren:



- 1. Kontsulta aurkezteko bilera prestatu**
- 2. Komunikazio kanpaina**
- 3. Kontsultako aurkezpena**
- 4. Hurrengo bilera**

Kontsulta aurkezteko bilera

TEKNIKARIA: Asteartean adostu genuen aurrekari eta galderan aldaketa batzuk egin dira eta aurkeztuko duguna ondorengo hau da:

Ordiziako herritarrek, etxebizitzetako hondakinen bilketaren inguruan bere iritzia eman eta erabaki nahi dute. Ordiziak batazbesteko %75eko gaikako bilketa batekin (zaborretara botatzen dugunetik errefusa ez diren gainerako frakzio guztiak bereizita) birziklatzen du gaur egun. Herri-galdeketa honetan proposatzen diren edozein aukeretatik eratorriko den emaitzak birziklatze-tasa hori bermatuko du, guztion ahalegin eta erantzukizunez %85a lortzeko helburuarekin. Herri-galdeketa emaitzaren ondorioz etxebizitzetako hondakinak biltzeko egutegi bat ezarriko da, eta etengabeko jarraipena burutuko da birziklatze tasa eta jasotako hondakinen kalitatearen inguruan, hala balegokio, beharrezkoak diren hobekuntza neurriak hartuz, ingurumen iraunkortasun irizpideen arabera.

Ordizian gaikako ze hondakinen bilketa sistema erabili behar dela uste duzu?

	<p style="text-align: center;">Ordiziako hondakin mahaiaren bilera</p> <p style="text-align: center;">16/02/18 Udaletxean 18.00-20.30</p>	
---	---	---

- BILKETA SISTEMA MISTOA. Errefusa eta organikoa atez-ate, eta gainontzeko frakzioak edukiontzi kolektiboetan.
- EDUKIONTZI KOLEKTIBOEN SISTEMA. Errefusa eta organikoa chip-a duten edukiontzi itxietan eta gainerako frakzioak edukiontzi kolektiboetan.

ALKATEA: Kontsulta aurkezteko bileran jarraituko duen gidioa azaltzen du:

1. Herritarrak zoriondu azken bi urte t'erditan gaikako bilketan lortutako %75eko bataz bestekoarengatik eta baita oraindik hobetzeko aukerak ditugula adierazi, Ordizia eredugarria izan daitekeela.
2. Hondakinen bilketan murrizketa eta berrerabilpena bultzatu behar direla esan.
3. Hondakin mahaiaren aurkezpena:
 - a. Partehartzaileak zeintzuk izan diren.
 - b. Bilera kopurua, zenbat ordukoak eta bertan ze gai landu diren.
 - i. Sasietao aurkezpenak: Bilketa modelo ezberdinak aurkeztu dizkigu beraien kostuekin eta 2016ko diru kontuak.
 - ii. Beste udalerrietako galdera eta adostasunak landu ditugu
 - iii. Beste udalerrietako prozedimendu ezberdinak landu ditugu
 - c. Lortu ditugun adostasunak:
 - i. Gaikako bilketa tasa gutxienez %75ekoa izan behar du.
 - ii. %85eko tasa batetara iritsi behar dugu.
 - iii. Helburuak ez badira betetzen neurri zuzentzaileak ezarriko dira.
 - iv. Kontsultara dijoan galdera eta prozedimendua adostu dira.
4. Kontsultara dijoan galderaren aurkezpena
5. Kontsultako prozedimenduaren aurkezpena
6. Komunikazio kanpainaren berri eman

Denak ados aurkeztu duen gidoiarekin.



Komunikazio kanpaina

TEKNIKARIA: Komunikazio kanpainako gaiak hurrengo astearteko bileran landuko ditugu. Bakoitzak bere proposamenak aurretik bidaltzeko eskatzen du.

ALKATEA: Zehaztu ditzakegu bilera lekuak eta egunak.

TEKNIKARIA: Informazio saioak 4 guneetan banatzea aurreikusten da:

- **1.gunea: ALTAMIRA ETA OTEGIENEA** (Oianguren Institutua)
 - 15:00-16:30: Euskeraz
 - 18:30-20:00: Gazteleraz
- **2.gunea: BUZTUNTZA ETA SAN JOAN** (Urdaneta ikastetxea)

	<p style="text-align: center;">Ordiziako hondakin mahaiaren bilera</p> <p style="text-align: center;">16/02/18 Udaletxean 18.00-20.30</p>	
--	---	---

- 15:00-16:30: Gazteleraz
- 18:30-20:00: Euskeraz
- **3.gunea: SAN BARTOLOME, ESCARABILLA ETA URDANETA** (Barrena)
 - 15:00-16:30: Euskeraz
 - 18:30-20:00: Gazteleraz
- **4.gunea: ERDIGUNEA** (Barrena)
 - 15:00-16:30: Gazteleraz
 - 18:30-20:00: Euskeraz
- Beste bi saio antolatuko dira larunbat goiz batean (9:30-11:00 euskeraz eta 11:30-13:00 gazteleraz) aurretik eskeinitako auzokako saioetara juterik izan ez dutenei parte hartzeko aukera emateko.

ALKATEA: Barrenako bilerak Barrenan egi beharrean Udaletxean egitea hobe da, Udaletxean igogailua baitago.

TEKNIKARIA: Komunikazio kanpaina otsailak 29tik martxoaren 11era da. Nik aste bakoitzean bi lekutan bilerak egitea proposatzen dut. Eta larunbateko bilera lehenengo larunbatean.

Honela adosten da:

MARTXOAK 1 (Asteartea)

- **1.gunea: ALTAMIRA ETA OTEGIENEA** (Oianguren Institutua)
 - 15:00-16:30: Euskeraz
 - 18:30-20:00: Gazteleraz

MARTXOAK 3 (Osteguna)

- **2.gunea: BUZTUNTZA ETA SAN JOAN** (Urdaneta ikastetxea)
 - 15:00-16:30: Gazteleraz
 - 18:30-20:00: Euskeraz



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

16/02/18 Udaletxean 18.00-20.30



MARTXOAK 7 (Astelehena)

- **3.gunea: SAN BARTOLOME, ESCARABILLA ETA URDANETA**
(Udaletxean)
 - 15:00-16:30: Euskeraz
 - 18:30-20:00: Gazteleraz

MARTXOAK 9 (Asteazkena)

- **4.gunea: CENTRO** (Udaletxean)
 - 15:00-16:30: Gazteleraz
 - 18:30-20:00: Euskeraz

MARTXOAK 5 (Larunbata)

- **Udaletxean**
 - 9:30-11:00: Euskeraz
 - 11:30-13:00: Gazteleraz

Herritarrak dagokion auzoko bilerara ezin badu joan beste edozein auzotako bilerara joan daiteke edo larunbateko bilerara.

LANDARLAN: Aurreko bileran hondakinen bilketa eskolatan nola egin behar genuen ez genuen zehaztu.

ALKATEA: Bilketa edukiontzietan egiten dute.
Baina esaten du ez dakiela hauek nola ordaintzen duten hondakinen tasa.

BILDU: Agian ez dute ordaintzen. Garbiketa zerbitzua bezala Udalak ordaintzen duela.

LANDARLAN: Ezberdina da eskola publikoa edo pribatua den.



ALKATEA: Baina bi kasuetan eraikinak publikoak dira.

BILDU: Institutuko eraikina da Eusko Jaurlaritzakoa.

Kontsultako aurkezpena

Arratsaldeko 19:00etan kontsultako aurkezpeneko bilera hasten da eta Alkateak aurkezpena egiten du bi hizkuntzatan.

Gerturatu direnek ondorengo galderak egin dituzte:

	<p>Ordiziako hondakin mahaiaren bilera</p> <p>16/02/18 Udaletxean 18.00-20.30</p>	
--	---	---

- Aldaketak ekonomikoki zenbat diru suposatuko du:

ALKATEA: Datu hau oraindik ez dugu ezagutzen.

- Kontsulta ontzat hartzeko zenbateko parte hartzea jarri duzue?

ALKATEA: Ez dugu finkatu. Beste herrietan %30 izaten da. Baina kontsultan ateratzen dena martxoak 17ko plenoan onartuko dugu eta hau da ezarriko dugun sistema.



- Aukeran bi sistema daude, gaur egungo sistema (atez-atekoa) zergatik ez da azaltzen?

BILDU: Adostasun oso garrantzitsuak lortu ditugu hondakinen mahaiaren, gaur egungo batezbestekoa den %75eko gutxieneko birziklatze tasa mantentzea, helburua hobetzea izatea %85era heldu arte, ezarriko den sistemaren emaitzen jarraipen zehatza burutzea, helburuak beteko ez balira neurri zuzentzaileak jartzea, eta galdeketara etxebizitzaren hondakinen bilketa eramatea soilik, Sasietako irizpide teknikoak medio, merkataritza eta ostalaritza hondakinen bilketak atez ate jarraituko baitu gaur egun bezala.

Adostasun horien ondoren, galderaren erantzunak eztabaidatzerakoan hiru aukerekin hasi ginen, baina ez adostasunez, bakoitzak egindako proposamen ezberdinen batuketaz baizik. Hiru aukerek adostutako gutxienekoak betetzeko berme osoa ematen zuten Sasietako azterketa teknikoaren arabera, atez atekoa, sistema mistoa eta edukiontzi kolektiboak, errefusa eta organikoa chipdun edukiontzi itxietan eta irekiera egutegiarekin.

EH Bildutik beste udalerrietako bilakaera jarraitu dugu, eta hausnarketa burutu dugu guk ere. Guretzat atez atekoak sistemarik onena izaten jarraitzen du, baina teoriarik onena den sistema bat praktikara eramatean emaitza onak lortzeko herritarren bultzada behar da, eta onartu beharra daukagu atez atekoaren gizarteratzea ez dela nahiko genukeen bezain ona izan. Zentzu honetan Sasietaren azterketa teknikoak ondorioztatu dugu 5. edukiontzia bezala ezagutzen zen edukiontzi berdearen sistema ez dela baliagarria. Galdeketara ahalik eta adostasunik handienarekin heltzeko, pentsatu dugu atez ate purua ere alde batera uztea, ezagutzen genituen bi muturreko sistemak kendu, eta bi sistema berritan artean aukeratzeko. Helburua gutxieneko adostutako birziklatze tasak mantendu ez ezik, hobetzea da, eta horretarako galdeketatik ateratzen den sistemak guztiona izan behar du.

Bestalde, gaur egun atez atekoa jarri zenean baino sistema gehiago daude, adostu dugun birziklatze tasa lortzea bermatzen digutenak. Garrantzitsua helburua da, eta ez hainbeste horretarako erabiltzen dugun sistema. Edonola ere, sistema mistoa atez atekoaren garapena da, arazoa diren errefusa eta organikoa atez ate biltzen jarraitzen direlako, eta hobekien bereizten diren frakzioak, baina ere berean bolumen aldetik etxeetan eragozpen handienak

	<p>Ordiziako hondakin mahaiaren bilera</p> <p>16/02/18 Udaletxean 18.00-20.30</p>	
---	---	---

sortzen dituztenak, izango dira edukiontzi kolektiboetan bilduko direnak. Azkenik, esan behar da, Sasietako birziklatze tasaren rankingean sistema mistoa duten herriak direla lehen postuetan daudenak, atez ateko puruaren aurretik sarritan.

- Orain dela lau urte zenbateko tasa zegoen?

%36koa zen gaikako bilketako tasa.

- Lau urte hauetan tasa hau asko igo da, zergatik aldatu behar da sistema? Mahai honek pentsatzen nuen beste erabaki bat hartuko zuela. 4 urte hauetan Udalak ez du ezer egin. Ondo egiten ari gara, tasa handiekin, hobetu daiteke eta Udalak daukagun sistema hobetu beharko luke.

ALKATEA: Hauteskundeen ondoren kezka bat zegoen. Gizarteratzea ez zen egokiena izan. Talde politiko guztien artean kontsulta egitea erabaki genuen. Helburua %85eko tasa bat lortzea da. Sistemarekin gaikako tasa handitu egin behar dugu, badaude beste sistema batzuk non tasa hauek lortzen diren. Goierrin hiru udalerrietan edukiontzi grisa txiparekin dago, Idiazabal, Olaberria eta Zegama. Arrasaten %85era iritsi dira, edukiontzien bidez baina hezitzaileak jarrita.

LANDARLAN: Guk beste proposamenak egin ditugu, atez-atekoa ere bai. Bi eredu berri aurkezten ditugu eta polarizaziotik ateratzen gara. Tasa altuak lortzen dira chip-a duten edukiontzien sistemarekin baina sistema mistoarekin ere tasa altuak lortzen dira. Herritarrak bi aukera hauek ondo ezagutu behar dituzte, arduratu egin beharko da bi sistema hauek ezagutzez. . Hondakinen kalitatea ere kontutan hartu behar da. Denda, taberna eta jatetxetan atez-ateko zerbitzua mantenduko da. Kontsulta etxeetako hondakinen bilketari buruzkoa izango da bakarrik.

NEKANE: Bera herritar bezala atez-atekoaren aldekoa da eta sistema egokiena dela iruditzen zaiola esaten du. Oraingo proposamenarekin kontraesanetan jartzen da. Denen artean adostasun bat lortu nahi zen. Denak bultzatutako sistemak izango dira. Gaikako bilketa hobetu eta ez polarizatzea da helburua.

IRABAZI: Zailtasun handiak izan ditugu adostasun honetara iristeko. Guk lehenengo bileretan aukera bakarra defendatzen genuen baina ez dugu lortu. Adostasun honetara ezin izan gara iritsi. Sistema mistoa, atez-ateko hobetu bat izango zen eta edukiontziena chip-akin, edukiontziena hobetuta. Bi sistema adostea lortu dugu.

BILDU: Guretzat galdera bera baino garrantzitsuagoa da aurrekaria, bertan gutxienekoak eta helburuak finkatu ditugulako, eta betetzen ez baditugu neurri zuzentzaileak hartuko ditugula adostu. Helburuak betetzea da



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

16/02/18 Udaletxean 18.00-20.30



garrantzitsua, eta hori lortzea bermatzen duten sistema guztiak horretarako baliabideak dira.

- Zergatik ez da indartzen atez-ateko sistema?

ALKATE: Lehen erantzun dugu galdera honi. Gizartean kezka bat zegoen. Kontsulta egitea adostu da. Emaizak ikusiko ditugu. Helburuak lortzeko jarraipena egingo da eta ez badira lortzen hobekuntzak egingo dira.

BILDU: Sistemak ez dira itxiak, atez atekoak berak garapen bat izan lezake, eta hori iruditzen zaigu izan litekeela sistema mistoa. Atez atekoak jarraitzen duelako arazoa sortzen duten organiko eta errefusaren bilketan, eta besteak jasotzeko bilketa modu malguago bat erabiltzen da, etxeetan erabiltzaileei sortzen dizkien eragozpenak aintzat hartuta, erosoago delakoan, baina frakzio horiek ondo sailkatzen direla dakigunean.

ALKATEA: Beasainen adostasun batetara iritsi dira; edukiontzi grisa errefusarentzat eta organiko eta errefusaren edukiontziak chip-arekin.

IGOR EGUREN: Herritar gisa nik esan nezakeen sistema egoki bat edukiontzi bidezkoa izan zitekeela, baina borondatezkoa zen eta datu txarrak ematen zituen. Ondoren, Udal ordezkari bezala sistema berri bat ezarri genuen. Denborak bi gauza erakutsi dizkigu:

- o %36tik %75era pasa gara.
- o Hondakinen bilketa borondatearen esku ezin da utzi.

Ibilbide berri honetan, herritarren eskaera zegoen galdeketa bat egiteko. Bermeak ematen diren guztietan herritarrei hitza eman behar zaie.

Eskerrak eman hondakin mahaiari, partehartzeagatik, adostasun batetara iristeagatik eta lan hau egiteagatik.

EH Bilduk kontsultako emaitza aintzat hartuko du eta herritarrak ere horrela egitea espero du.

Galdeketa hau egitea oso garrantzitsua da.

EAJ: Garrantzitsua kontsulta egitea izango da. Herritarrei hitza eman zaienean, herritarrak erantzun egiten du. Guk ere adostasun baten bila emaitza onartu dugu. Partaidetza bultzatu behar dugu eta beldurra kendu behar diogu.

- Kontsulta bat egin daiteke errauskailuaren inguruan?

ALKATEA: Mahai honetan landu da baina alde batera utzi genuen. Irabazi eta Landarlan-ek eskaerak egin zituzten. Mahai honek bi lan ditu:

- o Kontsulta egitea
- o Jarraipena egitea

Gai hau landu nahi bada egingo da.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

16/02/18 Udaletxean 18.00-20.30



BILDU: Galdeketa hau baino gehiago egitea espero dugu. Gai hau landu beharko litzateke.

IRABAZI: Landarlan eta guk hau komentatu genuen. Intentzioen deklarazio bat egin beharko genuke. Jarraipenerako mahaia egongo da, datuak aztertuko dira, sentsibilizazio kanpainak bultzatuko dira,....

LANDARLAN: Udalerri guztietan %75eko gaikako tasa izango bagenu errauskailuaren beharrik ez zen egongo. Ordizian gaikako tasa hau badugu zergatik ez beste udalerrietan galdetzen du. Batzar Orokorrean hau landu beharko litzateke. Beste eskualdeei ardura eskatu.

EAJ: Gai hauek ez ditut landu nahi, Ordiziako gaiak bai baina hemendik kanpokoak ez.

- Zer egiten da hondakinekin gaika bereizi ondoren?

ALKATEA: Kezka hau izan dugu mahaiaren eta komunikazio kanpainan landuko da.

HERRI EKIMENA: Zenbateko kostua duen ere azalduko da.

BILDU: Zenbat diru sarrera ematen digun ere azalduko da.

Bilerako kide batek komentatzen du gutxienekoa dela diru kontua, baina garestia bada eta hobe osasunarentzat. Berak nahiago duela garestia izatea.

- Bi sistemen artean ezberdintasun nabarmenak daudela esan duzue. Komunikazio kanpainan informazio hau trasladatzea eskatzen dute.

ALKATEA: Web orrialdean bileretako informazioa dago eta komunikatzeko bilerak egingo dira eta udal aldizkaria ere zabalduko da. Bertan informazio guzti hau ematen da.

LANDARLAN: Web orrialdean dagoen informazioan Sasietak aurkeztutako sistema guztiak daude baina orain komunikazio kanpainan kontsultara emango diren bi sistemen inguruko informazioa emango da.

IRABAZI: Informazio objektiboena emango dugu baina iritzia ere emango da. Horregatik bi aukera ditugu aukeratzeko, bestela bat egongo zen.

ALKATEAK: Bilerara gerturatzea eskertu du eta hondakin mahaiako kideei ere beraien partehartzea eskertu die.

20:30 aurkezpeneko bilera amaitzen da.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

16/02/18 Udaletxean 18.00-20.30



Hurrengo bilera

Hurrengo saioa otsailaren 23an arratsaldeko 18:00etan izango da Ordiziako Batzar Aretoan.

Bertan, ondorengo gai-ordena lantzea aurreikusten da:

- Aurreko aktak onartzea.
- Komunikazio kanpainako gaiak lantzea.